Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5928

AGINDUA, 2010eko azaroaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2000ko apirilaren 4ko Agindua bigarrenez aldatzeko (agindu horren bidez, unibertsitate-mailakoak izan ez eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak zehazten dituen irakaskuntzetako titulu akademikoak eta profesionalak emateko prozedura ezartzen da).

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak, ezarritako irakaskuntzetako titulu akademikoak eta profesionalak emateko ardura Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzten da, abuztuaren 23ko 1948/1996 Errege Dekretuaren arabera. Errege Dekretua Estatuko Administrazioaren zerbitzuak zabaltzeari buruzkoa da, EAEren esku utzitako irakaskuntzari dagokionez.

Urriaren 7ko 218/1997 Dekretuaren bidez(urriaren 23ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko titulu akademikoen eta lanbide-tituluen erregistroa sortzen da, eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari eskumena ematen zaio titulu akademikoak eta profesionalak emateko, eta zuzendaritza horren mendeko Antolamendu Akademikoaren Zerbitzuari dagokio tituluen kudeaketa administratiboa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2000. urteko apirilaren 4an emandako Aginduak definitzen ditu tituluak prestatu eta banatzeko prozesuko faseak, eta horretan laguntzen duten elementu guztiak nola koordinatu eta funtzionatu behar duten zehazten du.

Tituluen izapideak errazago egiteko, ez da beharrezkoa izango dagokion lurralde-ordezkariaren sinadura.

Era berean, titulua galduz gero, haren kopia egin behar bada, EHAAn iragarkia jartzeko baldintza kendu egiten da, betiere kontuan hartuta abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarra, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege organikoak ezarritako irakaskuntzetako titulu akademikoak eta profesionalak emateari buruzkoa.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5928

ORDEN de 4 de noviembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, de segunda modificación de la Orden de 4 de abril de 2000, por la que se establece el procedimiento de emisión de títulos académicos y profesionales de la enseñanza no universitaria, correspondientes a la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

La expedición de los títulos académicos y profesionales correspondientes a las enseñanzas establecidas por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, se traspasa a la Comunidad Autónoma del País Vasco en virtud del Real Decreto 1948/1996, de 23 de agosto, sobre ampliación de servicios de la Administración del Estado en materia de enseñanza traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por el Decreto 218/1997, de 7 de octubre,(BOPV de 23 de octubre), se procede a la creación del Registro de Títulos de la Comunidad Autónoma País Vasco y se atribuye la competencia en lo relativo a la expedición de títulos académicos y profesionales a la Dirección de Innovación Educativa, correspondiendo la gestión administrativa al Servicio de Ordenación Académica, dependiente de dicha dirección.

La Orden de 4 de abril de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, define las distintas fases del proceso de elaboración y distribución de los títulos, determina la coordinación y el funcionamiento de los distintos elementos que constituyen el mismo.

A fin de facilitar la Tramitación de los Títulos se elimina el requisito de la firma del o de la Delegada Territorial correspondiente en dicha tramitación.

Asimismo, se elimina el requisito de anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco, en caso de extravío del título, para la expedición de un duplicado del mismo, atendiendo a la Disposición Derogatoria única del Real Decreto 1850/2009, de 4 de diciembre, sobre expedición de títulos académicos y profesionales correspondientes a las enseñanzas establecidas por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

Hortaz,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2000ko apirilaren 4ko Agindua bigarrenez aldatzea. Agindu horren bidez, ezarri egiten da unibertsitate-mailakoak izan ez eta irakaskuntzetako Hezkuntza Sistemaren Ordenamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak zehaztutako titulu akademikoak eta profesionalak emateko prozedura.

Honela geratzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2000ko apirilaren 4ko Agindua, unibertsitate-mailakoak izan ez eta Hezkuntza Sistemaren Ordenamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak zehazten dituen irakaskuntzetako titulu akademikoak eta profesionalak emateko prozedura ezartzen duena:

Lehenengoa.– 8.3 artikulua (Prozesu orokorreko), honela geratuko da idatzita:

«3.– Bigarren Hezkuntzako Graduatuko tituluaren kasuan, titulua emateko proposamena horrela beteko da, eta horren bi ale inprimatuko dira ikastetxeko zuzendariak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak sinatzeko».

Bigarrena.– 9.2 artikulua (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izapidetzeko), honela gelditu da:

«2.– Titulua emateko proposamena inprimatzea eta ikus-onestea: titulua emateko proposamena behar bezala bete eta bi ale inprimatuko dira, ikastetxeko zuzendariak eta Hezkuntza Ikuskaritzak sina ditzaten. Horiek biek ziurtatu egin beharko dute ikasleak behar bezala betetzen dituela indarrean diren arauek titulua lortzeko jartzen dituzten baldintzak».

Hirugarrena.– 10.3 artikulua (gainerako tituluak izapidetzeko), honela geratuko da idatzita:

«3.– Proposamena inprimatzea eta ikus-onestea: proposamenaren bi ale inprimatuko dira, ikastetxe publikoko zuzendariak sina ditzan».

Laugarrena.– 20.2 artikulua (tituluen kopiak jaulkitzeko arrazoietako) ezabatu egin da.

Bosgarrena.– 21.b) eta c) artikulua (tituluen kopiak egiteko prozedura, titulua, osorik edo zati batean, galdu, desegin edo narriatu bada) ezabatu dira.

Por lo que

DISPONGO:

Artículo único.– Segunda modificación de la Orden de 4 de abril de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establece el procedimiento de emisión de títulos académicos y profesionales de la enseñanza no universitaria, correspondientes a la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

La Orden de 4 de abril de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establece el procedimiento de emisión de títulos académicos y profesionales de la enseñanza no universitaria, correspondientes a la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo se modifica en los siguientes términos:

Uno.– El artículo 8.3 Proceso general, queda redactado del siguiente modo:

«3.– De la propuesta de expedición del título así cumplimentada se obtendrán dos ejemplares impresos, que firmarán el director o directora del centro educativo y la Inspección Educativa, en el caso del Título de Graduado en Educación Secundaria.

Dos.– El artículo 9.2 tramitación del título de Graduado en Educación Secundaria, queda redactado del siguiente modo:

«2.– Impresión y visado de la propuesta de expedición de título: de la propuesta de expedición del título cumplimentada se obtendrán dos ejemplares impresos que firmarán el director o directora del centro educativo y la Inspección Educativa, que se asegurarán de que el alumno o alumna ha cumplido previamente los requisitos que exigen las normas vigentes para la expedición del título para el que es propuesto».

Tres.– El artículo 10.3 tramitación de los demás títulos, queda redactado del siguiente modo:

«3.– Impresión y visado de la propuesta: se obtendrán dos ejemplares impresos de la propuesta que serán firmados por el Director o Directora del centro público».

Cuatro.– El artículo 20.2 causas de expedición de duplicados, se elimina.

Cinco.– El artículo 21.b) y c) procedimiento de expedición de duplicados en caso de extravío, destrucción o deterioro totales o parciales, se eliminan.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 4a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.